

# Zentzumenak: sentitzeko bidea



*Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua*

Zentzumenak oso garrantzitsuak dira gizakiontzat, baina, diotenez, guztiok ez dugu berdin usaintzen, ikusten, entzuten... zentzumenen mundua oso subjektiboa omen da. Batzuentzat desatsegina dena besteentzat oso atsegina izan ahal da eta hor, desadostasunak, konparaketak eta sentimendu ezberdinak sortzen dira.

Sekuentzia honetan konparaketetan jarriko dugu arreta. Horretarako, ariketa hauek proposatzen dizkizugu:

- Galderei erantzun eta hiztegia landu.
- Audioa entzun eta erantzun egokia aukeratu.
- Konparaketak egiteko modu ezberdinak landu.
- Zure gustuak eta ikaskideenak konparatu.

## 1. Zein da garrantzitsuena?

Zure ustez, zein da garrantzirik handiena daukan zentzumenak: dastamena, entzumena, ukimena, usaimena edo ikusmena?

Eta zein daukazu garatuena? Arrazoitu zure erantzuna



Nik usaimen oso ona daukat.  
Behin lagunek proba bat egin  
zidaten usaintzen nituen  
perfumeak norenak ziren  
asmatzeko eta guztiak asmatu  
nituen! Baina ikusmen hobea  
eduki nahiko nuke...

Niretzat ere ikusmena da  
garrantzitsuena baina nik  
entzumen oso ona daukat.  
Horregatik, batzuetan soinu  
txikiekin esnatu egiten naiz  
eta gero ezin lorik hartu!

*Erlazionatu taulako hitzak dagokion zentzumenarekin. Bat baino gehiago izan daiteke.*

	Ikusmena	Entzumena	Usaimena	Dastamena	Ukimena
Gozo					
Garden					
Mingots					
Lakar/latz					
Ozen					
Ustel					
Horixka					
Geza					
Nazkagarri					
Leun					
Epel					
Zimur					

## 2. Munduko usainik onena eta txarrena

*Audioa entzun eta erantzun egokia aukeratu.*

1. Baieztapen hauetatik zein da zuzena?

- a) Usaimena zerbait pertsonala da, ez dauka norberaren kulturarekin inongo zerikusirik.
- b) Usaimena oso pertsonala da baina kulturak ere eragiten du usainen pertzepzioan.
- c) Usaimenari buruz oso gauza gutxi dakigu: horren inguruan ikerketa gutxi egin dira.

2. Usaimenen inguruko ikerketa egiteko...

- a) arratoiak erabili dituzte.
- b) institutuko 250 ikasle hartu dituzte.
- c) 250 pertsona hartu dituzte.

  
  
<https://labur.eus/Ufcic>

3. Munduko usainik onena...

- a) kafe usaina da.
- b) eguzkitako kremarena da: Nivea marka zehazki.
- c) banilla usaina da.

4. Non topa dezakegu azido isobalerikoa?

- a) Oinetako izerdian bakarrik, horregatik "gazta-usaina".
- b) Oinetako izerdian eta elikagai jakin batzuetan.
- c) Esnekietan, gaztetan batez ere.



*Bat zatozte entzungaiari aipatzen diren usain onenaren eta txarrenaren izendapenarekin? Talde handian sailkatu zuen taldearentzat zein diren usainik onenak eta txarrenak.*

### 3. Usainak konparatzen

#### Konparazioak

**Hain, horren:** berdinen arteko konparazioak egiteko erabiltzen da.

*Azalorearen zaporea ez da hain txarra.*

**Bezain:** kalitate-berdintasunezko konparazioak egiteko erabiltzen da.

*Azalorea brokolia bezain osagungarria da.*

**Adina/beste:** kantitate-berdintasunezko konparazioak egiteko erabiltzen da. Atzetik doan hitza mugagabea jartzen da.

*Nik zuk adina azalore jan dut.*

#### Gogoratu

**BAINO...-AGO:** bi osagaien arteko desberdintasunezko konparazioak egiteko erabiltzen da. *Zuk nik baino ikusmen finagoa daukazu. Zer jartzen du hor?*

**-EN:** gehiagotasuna (superlatiboa) adierazteko. Atzizki hau erabiltzean izena partitiboan (rik) jartzen da, baina ez da nahitaezkoa. *Munduko usainik txarrena azalreak dauka.*

Osatu testua dagokion partikula erabiliz (baino...-ago, -ena, bezain eta adina).

- Bihar nire etxean bazkalduko dugu, hemen baino eroso \_\_\_\_\_ egongo gara. Zein da zure janaririk gustuko \_\_\_\_\_? Nahi duzuna prestatuko dizut.

- Nahi dudana? Argiñano \_\_\_\_\_ sukaldari ona zara?

- Tira... ez dut berak \_\_\_\_\_ plater prestatzen baina ez naiz txarra.

- Niretzat jakirik goxo \_\_\_\_\_ Ñoquiak dira baina lan handia daukate.

- Ñoquiak? Hori baino plater zaila \_\_\_\_\_ prestatzen ditut, lasai! Inoiz jan dituzun on \_\_\_\_\_ jango dituzu.

- Ze ongi! Ardoa nire kontu. Badakizu, jatea \_\_\_\_\_ garrantzitsua da ongi edatea!

- Bai horixe!



Konparatu argazki hauetan agertzen dena partikula desberdinak erabiliz (baino...-ago, ena, bezain eta adina). Bakoitzaren tamaina, erakargarritasuna, atsegina den edo ez, zakarra edo leuna den... konpara dezakezu.

		<p>Pastelak</p> <p>Adib: Bizkotxoa pastela <b>bezain</b> borobila da.</p> <hr/> <hr/>
		<p>Etxeak</p> <hr/> <hr/>
		<p>Musika</p> <hr/> <hr/>

## 4. Elikagai nazkagarrienen museoa



*Malmö (Suedia), munduko elikagai nazkagarrienen museoa dago "Disgusting Food Museum" eta bertako piezak, ikustez gain... dastatzeko aukera ere ba omen dago: arrez betetako gazta, erdi usteldutako arraina, ardi begiak...*

*Nazka gizakiaren oinarrizko sei emozioetako bat da eta unibertsa da kultura guztietan.*

*Gelan zuen elikagai nazkagarrienen museoa antolatu behar duzue. Horretarako, gelakideen aurrean azaldu izugarritzko nazka ematen dizun elikagaia eta proposatu museo horretako obra bat izan dadin.*

Adib: Munduko elikagairik nazkagarriena topatzeko ez da munduaren beste muturrera joan behar. Euskal Herrian prestatu eta jaten da: tripakiak dira. Bai, zerrien heste eta tripa barruko haragia! Badakit txorizoa ere botatzen zaiola baina berdin zait: nazkagarria da! Ahora sartzean mota ezberdinetako testurak sumatzen dira: haragi zati gogorak, besteak guri-guriak, hortzetan itsasten zaizkizu eta usaina.... botaka egiteko gogoia ematen du! Nork jaten ditu zerrien tripak!!! Ez dut ulertzen. Elikagai nazkagarrienen museorako proposatzen dut.



# ERANTZUNAK

## 1. Zein da garrantzitsuen?

	Ikusmena	Entzumena	Usaimena	Dastamena	Ukimena
Gozo			x	x	
Garden	x				
Mingots			x	x	
Lakar/latz					x
Ozen		x			
Ustel			x	x	
Horixka	x				
Geza				x	
Nazkagarri	x		x	x	
Leun	x	x		x	x
Epel				x	x
Zimur					x

## 2. Munduko usainik onena eta txarrena

1-B,  
2-C,  
3-C,  
4-B

## 3. Usainak konparatzen

- Bihar nire etxean bazkalduko dugu, hemen baino erosoago egongo gara. Zein da zure janaririk gustukoena? Nahi duzuna prestatuko dizut.
- Nahi dudana? Argiñano bezain sukaldari ona zara?
- Tira... ez dut berak adina plater prestatzen baina ez naiz txarra.
- Niretzat jakirik goxoena Ñoquiak dira baina lan handia daukate.
  - Ñoquiak? Hori baino plater zailagoak prestatzen ditut, lasai! Inoiz jan dituzun onenak jango dituzu.
- Ze ongi! Ardoa nire kontu. Badakizu, jatea bezain garrantzitsua da ongi edatea!
- Bai horixe!